

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak gaur zabalduko ditu ateak

Landakon euskeraz eta gaztelerazko 477 nobedade aurki ditzakegu

Sandra Atutxa Durango

Nobedadeak

1. Liburu berriak

Aurtengo Azokan 361 liburu berri aurki ditzakegu.

2. Diskoak

Musikari dagokionez 34 disko berri aurkituko ditugu aurtengo Azokan.

3. Haur literatura

Gaztetxoengan pentsatuz eurentzako hainbat liburu berri aurkeztuko dituzte. Horien artean, "Tximeletak dantzan" (Karlos Santisteban); edo Xabier Mendiguren, "Karakolaren barruan".

4. Hiztegiak, hizkuntza

"Ordenagailuz idazteko Laguntza Tresnak" (El-huyar); "Diccionario Labayru. Vizcaino y Batua conjuntos" (BBK).

5. Itzulpenak. "Deposito ilegal"

(Karlos Linasoro) eta itzulpena Gerardo Markuleta; "Azken Gutuna" (Vassily Grossman eta itzulpena Felipe Juaristi).

6. Poesian.

Bingo, (Xabier Montoiarena); Denbora Aleak, (Karlos Linasoro); Bitoriano Gandiagaren poema argitaragabeak, (Bitoriano Gandiaga).

7. Arteak. "Valdorba Romanica"

(Andrés Ortega Alonso), Alaffaylla argitaletxea; "Sherezades", (Amable Arias), Bassarai argitaletxea.

8. Bestelakoak.

Euskal Herriko aurpegiak (El-huyar); Hitzmix (CD); y "Mapa de Euskal Herria", Sua argitaletxea.

9. Saiakera, historia...

"Duintasunaren Ibilbidea" (argazki bilduma); "Obras completas: Merindad de Tudela/La segunda república en Navarra", (J. M. Jimeno Jurio idazlearena), Pamiela argitaletxea.



Milaka euskaltzale hurbilduko dira gaurtik igandera Durangoko Euskal Disko eta Azokara. Ángel Ruiz Azua

Gaurko egitaraua

Ekintzak, goizez eta arratsaldez

Gaurtik hasita eta igandera arte, goizeko 10:30etatik iluntzeko 20:00etara Azokako ateak irekita izango dira.

Umeentzako pailazoak

11.00etan, Kiko Koko eta Moko pailazoan ikuskizuna, Haur Literatura Aretoa izango dira.

Euskararen aldeko lanaren aurkezpena

12:00 etan Euskal Herriko Unibertsitatearen ekitaldia izango da azoka aretoan (Elkartegian). "Baitezetik Lauaxetara" leloarekin unibertsitateak euskararen alde egin duen lanaren azken emaitza aurkeztuko du.

Mahai-ingurua antolatuko dute

16.00etan Gerediagak pro-

fesionalei zuzendutako lehen mahai-ingurua antolatu du. Ekitaldia Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentazainen Euskal Elkartearekin elkarlanean antolatua.

Hitzaldia, Joan Mari Torrealda

Azokaren inaugurazio ekitaldia egingo da aretoan. Sarrera hitzaldia Joan Mari Torrealda ikerleak eskainiko du. Torrealda ikaskai-

niko duen Hitzaldiaren izenburua: "Zentsura frankistaren irakurketa gaurkotua".

Pello Ramirezen disko aurkezpena

22:00 etatik aurrera Durangoko San Agustín Kulturunean Pello Ramirezen "Haize Ohialak" bakarka kaleratzen duen lehen diskoa aurkeztuko du. Sarrera 6 eurotan salgai dago Teleka zerbitzuan.

ATZOKO eta gaurko zentsura da aurtengo 40. aldian betetzen duen Durangoko Azokak jorratuko duen gai nagusia. Gaurtik hasita eta igandera arte hainbat hitzaldi, mahai-inguru, tailer eta ekitaldi prestatu dituzte antolatzaileek. Hizlari Joan Mari Torrealda, Fermin Muguruza edo Xabier Paia izango dira, beste batzuen artean. Horrez gain, Azokarekin batera, Gerediaga Elkartek ere 40 urte bete ditu aurtengo Durangaldearen ondare eta kontzientzia komuna berreskuratzeko eta indartzeko asmoz sortu zen 1965. urtean.

Horretan, 40 urtez, Durangaldeko ikerketa laguntzen eta sustatzen lan handia egin du. Eta euskal kulturaren arloan ere ezaguna egin da, urtero legez, bere ateak ireki dituen Euskal Liburu eta Disko Azokan.

Dena dago prest Durangon, hurrengo bost egunetan, euskal literatura eta musikarekin dugun hitzordurako. Azken egunak muntaia lanerako erabili dituzte antolatzaileek eta aurtengo Azokan parte hartu duten erakusleek. Buru belarri ibili dira gaurko dena prest izateko helburu bakarrarekin. Guztira, 309 erakusmahai izango dira aurtengo Azokan eta parte hartuko duten 163 argitaletzek 477 nobedade ekarri dituzte: 361 liburu, 34 disko, 43 bideo-dvd, 29 aldizkari eta bestelako 10.

Gaurkoa Ikasle eta irakasleentzako bereziki prestatutako eguna da. Azokara sartzeko ez da gonpidapen edo akreditazio berezirik behar. Gerediaga Elkartetik eskari berezia egin dute Azokara autobusez etortzeko asmoa duten ikastetxeei, autobuseko jaitxi eta igoerak Landako etorbidean egitea galdeginenez. Hortaz, egitarauari jarraiki, arratsaldean profesionalei zuzendutako ekitaldia izango da, elkartegia izanik hauek biltzeko aretoa.

Argizaiola Omen-Saria

Durango Euskal Liburu eta Disko Azokaren 40. edizioa den honetan, Argizaiola Omen-Saria Gotzon Garate idazle, iker-tzaile eta irakasleari emango zaio. Antolatzaileek diotenez, «gauean argia izan direnei esker-rak emateko» 1992an sortu zen sariak Garatek urteetan egindako lana aintzatzat hartuko du oraingoan. Ekitaldia San Agustín Kultur Gunean izango da, bihar, hilaren 8an. Gotzon Garate Goihartzun jauna Elgoibarren jaio zen 1934. urtean. Durangoko Jesulagundiaren ikastetxean egin zituen batxiler ikasketak. Garai honetan, berak dioenez, hartu zuen euskal kontzientzia eta euskararen aldeko jarrera.

Euskaltzaleok asteburu luzea daukagu aurretik Durangora aurreratzeko. Landako Erakus-tazokan eskuragarri izango baitugu hainbat liburu eta disko berri. Bakoitzak zain izango ditu bere altxor preziatuak.

Libros también para los más pequeños

NO SÓLO los mayores tendrán su centro de atención literaria durante esta Feria del Libro y del Disco vasco. Para ayudar a potenciar esa afición por la lectura surgió el "Haur Literatura Aretoa", el Salón de Literatura Infantil. Esta cuadragésima edición se volverá a apostar por acercar los libros y las historias, que en ellos se narran, al público más joven. Este es quizá, tal y como reconocen sus propios organizadores, «uno de los acontecimientos más exitosos, de todo lo

que ya aglutina la Feria». Gerediaga Elkartea eta Berbaro Elkartea organizan conjuntamente la "Haur Literatura Aretoa". Permanecerá abierto en horario de feria y se pondrá consultar clasificaciones por edades las publicaciones del 2004 recomendadas por expertos en literatura infantil y juvenil y las novedades editoriales de 2005, en una exposición para la ocasión. Dos monitores se encargarán de dinamizar el espacio lúdico-literario, a la vez de informar y ayudar

en las consultas que puedan hacerse. La "Haur Literatura Aretoa" tendrá su propio programa, en el que destacamos la actuación de cuentacuentos, talleres de poesía y cuentos. En esta edición se expondrá Liburu Erraldoia, un libro de grandes dimensiones, en el que todos los escolares de los centros educativos de Durango han participado aportando reseñas literarias. A su vez, se podrá adquirir a un euro la guía de libros recomendados de 2004-05.